


# **APARTHEID: BAZTERTZEAREN AURPEGI BERRIA**

eman ta zabal zazu



**Universidad  
del País Vasco**

**Euskal Herriko  
Unibertsitatea**

**Egilea: Olatz Michelena Lizaso**

**Tutorea: Susana Serrano Abad**

**Historiako Gradua**

**2016-2017**

**Historia Garaikideko Saila**

## **AURKIBIDEA**

LABURPENA .....	2
1. SARRERA .....	3
2. HEGOAFRIKA 1910.-1948. URTEEN BITARTEAN.....	5
2.1. <i>Politika: Zurien nagusigoa eta sendotzea</i> .....	5
2.2. <i>Biztanleria ez-zuriaren diskriminazioa</i> .....	7
2.3. <i>Erresistentzia beltzaren mugimenduaren hastapenak</i> .....	11
3. APARTHEID: BAZTERTZEAREN EGONKORTASUNA .....	12
4. “MAYIBUYE AFRIKA!” (ITZULI AFRIKA!) .....	18
5. ONDORIOAK .....	21
6. BIBLIOGRAFIA .....	24
7. ERANSKINAK .....	25

## LABURPENA

Nazioarteko testuinguruan Afrika deskolonizatzen hasi zen garaian, XX. mendean hain zuzen ere, Hegoafrikak beste bide bat jarraitu zuen. Lan honetan, Hegoafrikako Batasunaren sorrera, 1910. urtean, alegia, abiapuntu gisa harturik, XX. mendean zehar biztanleria ez-zuriak jasan zuen baztertze eta diskriminazio politiko, ekonomiko zein soziala aztertuko dugu. Eskubideen zapaltze honetan, 1948an D.F.Malan-ek National Party-ren buruak hauteskundeak irabazi zituenean, arraza zuriaren nagusitasun eta goraipamenean oinarritzen zen sistema jarri zuen martxan, hots, Apartheid-a. Gobernu afrikanerrak hauteskundeak irabazi zituenetik, herrialde honetan bizi ziren biztanle ez-zuriek geroz eta mugatuagoa ikusi zituzten euren eskubideak. Lan honen helburu nagusia, hain zuzen ere, baztertze eta diskriminazio honen nondik-norakoa aztertzea izango da, populazio ez-zuriaren eskubideen galera eta menpekotasun politikaren hasiera 1910ean markatuz. Aldi berean, garai honetatik aurrera piztu ziren erresistentzia mugimenduak ere azalduko dira, African National Congress (ANC) alderdia ardatz gisa harturik.

Helburu hauek betetzeko, lana bi bloke edo zati nagusitan banatu da; bereizketa hau Apartheid sistemaren hasierak markatzen duelarik. Hortaz, lehen zatian, sistema politikoa martxan jarri aurretik Hegoafrikako egoera politiko, sozial eta ekonomikoa azaltzen da eta bigarrean, sistema hau indarrean jarri zenetik, lehen hauteskunde multiarrazistak ospatu ziren arteko tarte kronologikoa hartuko du, 1948.-1994. hain zuzen ere, eta tarte honetan Hegoafrikako biztanle ez-zuriek sistema honen eraginpean bizi zuten egoera azaltzen da. Metodologiari dagokionez, oro har iturri idatziak erabili dira; hala nola, esku liburuak, biografiak edota artikulak. Iturri hauek baliagarriak izan dira XX. mendean Hegoafrikako populazioak jasan zuen gizateriaren aurkako krimen honen ikuspuntu orokorragoa eskuratzeko.

Azkenik, eta hausnarketa gisa, Apartheid sistema azaldu ostean, lanean zehar planteaturiko hipotesi edo galderen erantzuna jasoko da. Izan ere, lan honen helburua sistemaren nondik-norakoa aztertzea bada honen oinarritzko legeak azalduz, ikuspuntu zehatz batetik egingo da; biztanleria ez-zuriak Hegoafrikako sorreratik, hau da, 1910. urtetik diskriminazioa jasan zutela adierazi nahi da, nahiz eta 1948an, sistema honen ezarpenarekin diskriminazio hori areagotu eta diskurtso berria hartzen duela, ideologikoa alegia.

## 1. SARRERA

Bigarren Mundu Gerraren ondorioz, Europako potentzia kolonialistek ahulezia ekonomiko zein militarra pairatu zuten, euren nagusitasuna kolokan jarritz. Honez gain, azpimarratzekoa da gerra ondoren ireki zen mundu berrian ez zegoela lekurik europar kolonialismoarentzat, Nazio Batuen Erakundeak deskolonizazioaren aldeko jarrera babestu zuelarik. Modu honetan, XX. mende hasieran eman ziren deskolonizazio prozesuek bultzada handia jasan zuten eta 1955.-1970. urteen bitarte, Afrikako kolonia gehienek independentzia lortu zuten, Hegoafrikak izan ezik, honek bide ezberdina eraman baitzuen testuinguru honetan<sup>1</sup>.

Hegoafrikara lehen europarrak 1652an iritsi ziren, Herbehereetako Ekialdeko Indietako Konpainiaren eskutik, Lurmutur Hirian jarri zutelarik lehen kokagunea. Baina, 1795ean britaniarrak iritsi zirenean eta 1806an Lurmuturreko Hiria kontrolatu zutenean, bertako herbeheretarrak ekialdera kanporatu zituzten<sup>2</sup>. Hegoafrikako lurraldean koloniak lortzeak are gehiago handitu zuen munduko inperiorik handiena. Kolonia guztiak kontrolatzeko britaniar inperioak politika deszentralizatua eraman zuen aurrera, esan bezala, inperioaren handitasuna eta heterogeneotasuna zela eta. Horrela, Hegoafrikako koloniak “agindupeko lur” bezala izan ziren deituak; metropoliak zituen erakunde juridiko berdinak izateko eskubidea onartzen zitzaien nahiz eta “Commonwealth of British Nations” menpe egongo ziren<sup>3</sup>.

Apartheid sistema arrazista izan zen Bigarren Mundu Gerra ostean aldarrikatoriko deskolonizazio-eskaerari eman zitzaien erantzuna, XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera historia garaikidea markatu duen Giza Eskubideen urratze zein baztertze egoera larrienetarikoa hain zuzen ere. Toki gehienetan gutxiengo zuriak bere pribilegio juridikoak bertan behera utzi baziren ere, kontrakoa gertatu zen Hegoafrikan<sup>4</sup>. Izan ere, 1946. urteko biztanleria zentsuaren emaitzetan oinarrituz, 11,4 milioi pertsona bizi ziren Hegoafrikan, horietatik 2,4 milioi europarrak izango ziren, hau da, biztanleria zuriak; 1,2 milioi *coloured* edo asiarrak (gehienbat indiakoak) eta gainerako 7,8 milioi arraza

---

<sup>1</sup> Fernando Martínez Rueda eta Mikel Aizpurua Murua, *Gaur egungo munduaren historia 1945-2009* (Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2011), 205.-209.

<sup>2</sup> Robert Ross, *Historia de Sudáfrica* (Madril: Akal, 2006), 22.-26.

<sup>3</sup> Josep Sánchez Cervello, *Descolonización y surgimiento del Tercer Mundo* (Bartzelona: Hipòtesi, 1997), 31.-34.

<sup>4</sup> Fernando Martínez Rueda eta Mikel Aizpurua Murua, *Op.cit.*, 299.

beltzekoak izango ziren<sup>5</sup>. Datu hauek erakusten duten bezala, biztanleriaren gehiengoa arraza beltzak osatzen bazuen ere, gutxiengoaren menpe egongo ziren. Honek markatzen du lurralde honen berezitasuna, XX. mendeko testuinguruan egoera hori aldatzen ari bazen ere, Hegoafrika txanponaren beste aldea bihurtu zen.

Iturri anglosaxoi askok Hegoafrikako biztanleriaren segregazio eta diskriminazioaren abiapuntua 1948an jartzen dute, D.F. Malan Hegoafrikako hauteskundeak irabazi zituenean alegia, baina beste aditu askoren ustez, David Welsh besteak beste, baztertze honen lehen urratsak britaniarrak Hegoafrikara iritsi zirenean eman zirela defendatzen dute, adibidez aditu honen ustez, britaniarrek Natal-eko kolonian gauzatu zuten politikaren helburua afrikar lan esku merkea lortzea eta afrikar erreinu nagusiak kontrolatzea izango zen<sup>6</sup>.

XVI.-XVIII. mendeetan eman zen kolonizazio honetan jada Hegoafrikako indigenek europarren aldetik zapaltze bat jasan bazuten ere, lan honen abiapuntu kronologikoa 1910. urtean izango da, urte horretan Hegoafrikako Batasuna sortu baitzen, britaniarrak ziren lau kolonien elkartzearen ondorioz: Lurmutur Hiria, Orangeko Estatu Librea, Transvaal eta Natal hain zuzen ere (ikus 1. eranskina). Urte honetatik aurrera, hainbat lege ezarri ziren, guztien helburua arraza zuriaren goraiapatea izango zelarik, honakoa politika, ekonomia edota gizarte arloan islatuko zen.

Beraz, azken urteotan asko ikertu den gaia den arren, oraindik ere iritzi eta ikuspuntu kontrajarriak agertzen dira. Modu honetan, lan honetan jorratuko dugun gaia Apartheid sistema (1948.-1994.) bezala ezagutzen den baztertzea eta diskriminazioa aztertzea izango da. Honez gain, sistema honen abiapuntua edota sorreraren auzi lausoan murgilduko gara, izan ere; Apartheid hitz nederlanderak “bereizketa” edo “separazioa” esan nahi badu, eta Apartheid eta bereizketa sinonimotzat hartzen baditugu, zergatik jartzen da sistema honen abiapuntua 1948an, aurretik jada baztertze bat ematen bazen? Zer gertatu zen urte horretan abiapuntu gisa markatzeko?.

Lan honen ildo nagusia, beraz, Hegoafrikako biztanleria ez-zuriak jasan zuen baztertze sozial, politiko eta ekonomikoa aztertzea izango da, baita Apartheid sistema bezala ezagutzen den prozesu honen abiapuntua eta sustraiak ezagutzea ere. Horretarako,

---

<sup>5</sup> Jeremy Seekings eta Nicoli Nattrass, *Class, Race, and Inequality in South Africa* (New Haven: Yale University Press, 2005), 53.

<sup>6</sup> William Beinart eta Saul Dubow, *Segregation and Apartheid in Twentieth-Century South Africa* (Taylor & Francis e-Library, 2003), 6.

lana bi zati edo bloke nagusitan banatuko dugu: batetik, 1910.-1948. urteen bitartean Hegoafrikako biztanleria ez-zuriak jasan zuen baztertua azalduko dugu, baita garai honetan pizten hasi ziren erresistentzia mugimenduak ere; horretarako beharrezkoa izango den garaiko egoera politiko, ekonomikoa eta soziala ezagutzea; eta bestetik, 1948tik aurrera, Apartheid sistema bezala ezagutzen den sistemaren egonkortze eta hazkundera jorratuko dugu, aldi berean, erresistentzia eta lege hauen aurka finkatu ziren alderdi eta mugimenduak aztertuko ditugularik.

## **2. HEGOAFRIKA 1910.-1948. URTEEN BITARTEAN**

### *2.1. Politika: Zuriaren nagusigoa eta sendotzea*

1910eko maiatzaren 31tik, Hegoafrikako Batasuna sortu zenetik hain zuzen ere, 1948ra arte, D. F. Malan hauteskundeak irabazi zituen urtera arte, Hegoafrikako Batasunak aldaketa eta gora-behera anitzak pairatu zituen, politika, ekonomia eta gizarte arloan bereziki. XX. mende erdialde honetan, biztanleria zuriaren egonkortzea eman zen gobernuan, 1910eko hauteskunde orokorretan, Louis Botha buru eta Jan Smuts eskuineko esku gisa, South African Party<sup>7</sup> garaipena lortu zutenean<sup>8</sup>.

Alderdi politiko honen programak helburu bikoitza izango zuen: batetik, Hegoafrikako ekonomiaren ardatz nagusia errearen sektorea bilakatzea, izan ere, ordura arte nekazaritza izan zen ekonomiaren motorra nahiz eta XIX. mende erdialdetik aurrera industrializazioan zantzuak eman ziren errearen eta diamante meatzeak aurkitu zirenean<sup>9</sup>; eta bestetik, afrikaner eta britaniarren arteko koalizioa lortzea, horrela, Hegoafrikan zuriaren nagusigoa eta sendotzea emango baitzen.

Oposizioan, 1914an, National Party sortu zen, Barry Munnik Hertzog-en eskutik. Alderdi honen helburua afrikaner biztanleriaren interes ekonomiko eta kulturalak bermatzea izango zen. Lehen Mundu Gerrak bi alderdi hauen haustura ekarri zuen, izan ere, Britania Handia gerran sartu zenean 1914an, bere domeinutan zeuden beste herrialdeekin batera, Bothak, South African Party buruak, gerran parte hartzearen aldeko jarrera erakutsi zuen. Gerran esku hartzearen apustu honek ez zuen bat egiten biztanleria zuria guztiaren artean, bereziki afrikanerren sektorean, zeinak ez zuen beharrezkoa

---

<sup>7</sup> South African Party 1910ean sortu zen. Louis Botha izango zen alderdiaren buru hil zen arte, 1919ra arte alegia. Urte horretatik aurrera, Jan Smuts izango zen alderdiaren buru.

<sup>8</sup> Leonard Thompson, *A history of South Africa* (New Haven: Yale University Press, 2001), 152.-153.

<sup>9</sup> A. J. Christopher, *The Atlas of Apartheid* (Londres: Routledge, 1994), 23.-29.

ikusten gerran parte hartzeak<sup>10</sup>. Honez gain, gerra total honek ere ondorio ekonomikoak ekarri zituen. Hasiera batean, ekonomia gerra jarduerara bideratu zen, honi esker hazkundera eman zelarik, baina behin bakea ezarrita ekonomiak ahulezia pairatu zuen, eskaerak behera egin baitzuen eta enpresariak euren produkzio kostuak murrizteko asmoz, eskulana zuria beltzarengatik aldatzea erabaki zuten. Ondorioz, langile zurien haserrea piztu zen, bereziki industria eta meatzaritzako arlokoak<sup>11</sup>.

Langile zurien tentsioa 1922an azaleratu zen, urtarriletik martxora arte luzatu zen greba deialdiarekin. Gobernuak gogor erreprimitu zuen greba hau, 687 zauritu eta 153 hildako egon zirelarik<sup>12</sup>. Errepresio gogor honen ondorioz, langile zurien haserrea areagotu egin zen gobernua eta langile zurien arteko tira-birak handituz. Testuinguru honetaz Hertzog eta bere alderdia baliatu zen, zeinak Labour Party-rekin koalizioa osatu eta 1924an ospatu ziren hauteskundeak irabazi zituen.

Koalizioan gobernua 1924tik 1934ra arte egon zen indarrean. Gobernu honen programan hainbat aldaketa egin ziren: ekonomiaren arloan, adibidez, librekanbismoa alde batera utzi eta protekzionismoaren aldeko legeak ezarri ziren edota herrialdearen industrializazioa indartzeko eta areagotzeko asmoz, gobernua esku hartzea areagotu zuen: trenbide sareak, industriak, energia elektrikoa... bezalako azpiegiturak sortuz<sup>13</sup>. Honez gain, afrikaner identitatea bultzatu eta indartu zen, 1925ean plazaratu zen *South Africa Act* legearekin esaterako, zeinak ingelesa eta holandarraz gain, afrikaans (afrikanerren hizkuntza) ofiziala egiten zuen<sup>14</sup>.

Depresio Handiaren garaian, Wall Street-eko kolapsoarekin 1929an hain zuzen ere, Hegoafrikako ekonomia beherakada edo geldialdi fase bat pairatu zuen, izan ere, kanpo merkatuko eskaera murriztu egin zen eta honek ondorio zuzenak ekarri zituen herrialdeko produkzioari baita langabezia tasari ere, gora egin zuelarik. Testuinguru honetan, koalizioaren gobernua ere krisian sartu zen eta honek alderdi politiko berriak sortzea ekarri zuen ondorio gisa; hala nola, 1934an United Party, zeina Hertzog eta bere National Party, Smuts eta South Africa Partyren batasunaren emaitza izan zen; Purified

---

<sup>10</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 158.-159.

<sup>11</sup> Gerardo Denegri, "Sudáfrica: su difícil camino hacia la libertad," *Revista Relaciones Internacionales*, 49 (2015): 4.

<sup>12</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 160.

<sup>13</sup> Gerardo Denegri, *Op. cit.*, 4.

<sup>14</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 160.

National Party, D. F. Malan buru izango zena eta helburua afrikanerren interesen defentsa izango zen; eta Dominion Party.

Aniztasun politiko honekin, 1938an hauteskundeak ospatu ziren, United Partyk irabazi zituenak. Beraz, Hegoafrikako Batasuna sortu zenetik, 1910ean hain zuzen ere, gobernu eta alderdi politiko ezberdinek zurien koalizioa eta indarra bermatzen saiatu baziren ere, afrikaner eta britaniarren arteko elkartzeko osoa 1938an eman zen United Partyren sorrerarekin. Alderdi honek erabat bermatuko zituen zurien interesak, bai afrikanerrenak bai britaniarrenak.

Baina, Bigarren Mundu Gerraren oihartzuna ere iritsi zen Hegoafrikara eta honek lehen oztopo eta desadostasunak ekarri zituen Hertzog buru zen gobernu berri honetan, izan ere, gerrak eztanda egin zuenean, Smuts aliatuen alde borrokatzeko jarrera defendatu zuen. Tentsioa pil-pilean zegoen eta Hertzog dimisioa aurkeztu zuen, Smuts lehen ministro izendatuz. Honek kargua hartzearekin batera, Hegoafrikak aliatuen alde borrokatuko zuen Bigarren Mundu Gerran.

Gerra honek, Hegoafrikako hazkunde ekonomikoa posible egin zuen, produkzioa gerraren beharren mesedeetara ezarri baitzen, horrela, manufakturen industriak eta meatzaritzaren sektoreek hazkundera bizi zuten. Honekin batera, eskulan gehiago behar zen eta horrek afrikanen landa exodoa ekarri zuen. Prozesu honetan, XX. mende hasieratik afrikarrak pairatzen hasi ziren diskriminazioa arlo geografikora pasa zen, beltzek ezin baitzuten hirietan bizi<sup>15</sup>. Ondorioz, hiri nagusietatik kanpo ghettoak sortzen hasi ziren: Sophia esaterako, Johannesburgo kanpoan.

## *2.2. Biztanleria ez-zuriaren diskriminazioa*

1910.-1948. urteen bitartean, politika arloan zurien nagusigoa eta sendotzea eman zen, Hegoafrikako biztanleria ez-zuria txanponaren beste aurpegia bihurtu zelarik. Botha eta bere alderdi politikoa, — South African Party — gobernuan ezarri zenetik, arraza zuriaren interesen defendatzaile izan zen, gainerako biztanleria alde batera utziz. Honek, 1948an areagotu eta gogortu egin zen sistemaren lehen urratsak ekarri zituen ondorio gisa.

Nekazaritza munduan biztanleria zuria eta ez-zuriaren arteko ezberdintasunak kolonizazio garaitik hasi baziren ere, Hegoafrikako Batasuna sortu zenean, ezberdintasun

---

<sup>15</sup> Oliver Roland, *Africa desde 1800* (Madril: Alianza, 1997), 342.-343.



horiek areagotu egin ziren. Gobernu berriaren lehen urratsa, afrikarren eskuetan geratuko ziren nekazaritza lurak banatzea izango zen, horretarako 1913an *Natives Land Act* (Natiboen Lurren Legea) plazaratu zen. Lege honen ondorioz, 8,9 milioi hektarea atxikitzen zitzairen, herrialdearen nekazaritza lurren %7a hain zuzen ere<sup>16</sup>. Kontuan izanik 1946ko zentsuaren arabera, Hegoafrikan 11,4 milioi pertsona bizi zirela eta horietatik %68a afrikarrak zirela eta %21a zuriak<sup>17</sup>, lege honek argi uzten du gutxiengo baten esku uzten zirela Hegoafrikako nekazaritza lurren jabegoa. Honez gain, lege honek beste arlo batzuk ere mugatu zituen; hala nola: beltzek ezin zituzten esleitutako lurretatik at beste batzuk erosi edota alokatu, Lurmuturraren probintzian izan ezik. Honek erabat mugatzen zuen nekazari eta langile beltzen esparrua nekazaritza eremuan, lurren gutxiengo bat atxikitzeaz gain, ezin baitzituzten zurien lurak erosi edo alokatu, soilik bertan lan egin zezaketen.

1936an lege hau zorrozten zuen arau berria plazaratu zen, *Native Trust and Land Act* (Natiboen Fideikomiso eta Lurren Legea) zeinak, beltzen lurak 6,2 milioi hektarea ingurura murriztu zen (ikus 2. eranskina). Gainera, lege honek zuriei lur gehiago erosteko ahalmena ematen zion, izan ere, parlamentuak diru-laguntzak eskainiko zituen lurak erosteko<sup>18</sup>. Honez gain, arau honek Lurmuturreko Probintzian beltzei bozkatzeko aukera debekatu zitzaien<sup>19</sup>.

Modu honetan, XX. mende hasieran afrikar gehienak zurien erreserbetan bizi ziren, 1920an batzuetan superpopulazioa eman zelarik. Bizitza erreserba hauetan oso gogorra zen, baldintzak oso txarrak baitziren. Ohikoak izaten ziren gaixotasunak, epidemiak edota bertako biztanleen desnutrizioa, izan ere, afrikarrei egotzitako lurraren lanketarekin ez zen nahikoa izango biztanleria afrikarraren eskaria asetzeko. Ondorioz, goseteak eta desnutrizio tasa altua ekarri zuen<sup>20</sup>.

Bigarren Mundu Gerra ostean, Hegoafrikako ekonomia berreskuratu zenean, gobernua diru asko inbertitu zuen nekazaritza arloan; teknologia edota garraiobide hobegoak sortuz. Honek produkzioaren hazkundea ekarri zuen, baina soilik lur jabe

---

<sup>16</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 163.

<sup>17</sup> Jeremy Seekings eta Nicoli Nattrass, *Op. cit.*, 53.

<sup>18</sup> A. J. Christopher, *Op. cit.*, 32.-35.

<sup>19</sup> Hegoafrikan bozkatzeko aukera ezberdina zen probintzien arabera. Hala ere, oro har, beltzek ezin zuten bozkatu, Lurmuturreko probintzian izan ezik. Bertan, gizon zuriez gain, afrikar eta *coloured* biztanle gutxi batzuk ere bozkatzeko aukera zuten.

<sup>20</sup> Jeremy Seekings eta Nicoli Nattrass, *Op. cit.*, 53.-54.

zurien erreserbetan, gobernuak soilik hauetan inbertitu baitzuen<sup>21</sup>. Ondorioz, beltzak gobernuak eskaintzen zuen laguntzaz kanpo egoteaz gain, merkatuan ere lehiatzeko aukerak murrizten zitzairen, hauek produktu gutxiago eta garestiagoak izango baitziren.

Nekazaritza eremuan pairatzen zituzten ezberdintasun hauen ondorioz, eta industriaren hazkundera ematen zen testuinguru batek eskaintzen zituen aukerak aprobeixatu nahian, biztanle ez-zuri askok erreserbak utzi eta hirietara joan ziren lanpostu bila. Oro har, gizonak izango ziren soilik hirietara joaten zirenak, emakumeek erreserban geratzen ziren bitartean, bertako lanaz gain euren seme-alaben heziketaz arduratzen zirelarik<sup>22</sup>. Hala ere, hirietara emigratu zuten gizon hauek ez zituzten espero zituzten emaitzak lortu, bertan ere diskriminazioa eta baztertua egunerokotasunean errotuta baitzegoen.

Biztanleria beltzak hirietan jasan zuen baztertua kolonizazio garaian jada lehen urratsak eman baziren ere, Hegoafrikako Batasunaren garaian zentratuz, esan beharra dago ezberdintasun horiek areagotu egin zirela. 1920ko hamarkadan nekazaritza eremutik lehen emigrante olatua iritsi zenean, zuzenean lehiatuko zuten bertan aurkitzen ziren biztanleria zuriarekin. Hamarkada honen amaieran depresio ekonomikoa eman zen eta honek are gehiago larritu zuen egoera, izan ere, langabezia tasa handitzean, zurien eta ez-zurien arteko lehia lanpostu bat lortzeko orduan areagotu egin zen. Ondorioz, lege ezberdinak plazaratu ziren biztanleria zurien interesak bultzatuko zituztenak, horretarako beltzen egoera kaltetzen bazen ere.

1922an, adibidez, Transvaaleko gobernu lokalak, hirietan zurien eta ez-zurien arteko ezberdintasunak areagotzeko asmoz, lege gogor eta zurrinak ezartzea eskatu zuen gobernu zentralari. Horrela, 1923an *Natives (Urban Areas) Act* plazaratu zen. Lege honek hirietako gobernariari biztanleria ez-zuriarentzat eremu propioak egozteaz gain, hirietara emigratzen zutenen kopurua kontrolatzeko ardura ezartzen zuen. Lege hau emendatua eta gogortua izan zen 1945ean<sup>23</sup>. Modu honetan, biztanle ez-zuriek zurien bizitegi-gunetik urruti egon behar zuten, horrela, hiri handien inguruetan txaboletan bizitzen hasi ziren; Sophiatown eta Alexandra Johannesburgon adibidez. Eremu hauetan ere baldintzak oso kaxkarrak izango ziren, oso eraikuntza pobre eta xumeekin<sup>24</sup>.

---

<sup>21</sup> LeonardThompson, *Op. cit.*, 164.-166.

<sup>22</sup> Jeremy Seekings eta Nicoli Nattrass, *Op. cit.*, 53.-62.

<sup>23</sup> A. J. Christopher, *Op. cit.*, 35.-42.

<sup>24</sup> Jeremy Seekings eta Nicoli Nattrass, *Op. cit.*, 64.-65.

Beraz, hirietan geroz eta hegoafrikar gehiago ezartzen hasi ziren eta zuriak emigrazio olatu beltz hau kontrolatu nahian, geografikoki mugatuko zituen legeez gain, hauen mugimenduak kontrolatuko zituzten legeak aldarrikatu zituzten; hala nola, *Pass law* edo “Igarotzeko dokumentazioa”. Dokumentazio honen jatorria XVIII. mendean dagoen arren, garai hartan esklaboek behartuak zeuden agiri hauek eramatea zeinetan euren jabeen sinadura agertzen zen, XX. mendean antzeko funtzioa izango zuten, hau da, nondik zetozen, edota zein nekazaritza erreserbako langileak ziren... islatzen zituzten agiriak ziren. Hauen helburua, hirietan hegoafrikarren kontrola bermatzeaz gain, (zein sartu, zein atera... kontrolatzeaz gain), hirietan ez bizitzeko kontrola ezartzea izango zen<sup>25</sup>.

20ko hamarkadan, industria arloan ere hainbat lege ezarri ziren zurien eta beltzen arteko ezberdintasunak ugaltzeko; esate baterako: *Apprenticeship Act* (1922), lege honek langile zuriak beharrezkoak zituzten ikasketak eskaintzen zituen. Langile beltzek, aldiz, ezin izango zituzten ikasketak hauek burutu ez baitzituzten beharrezkoak ziren gaitasunak izango. Honen ondorioz, langile zuriak lan espezializatuagoak egin zitezkeen, eragin zuzena izango zuena soldata eta lan baldintzetan. Aldarrikatu zen beste lege bat, *Industrial Conciliation Act* (1924) izan zen, zeinak lotura zuzena izan zuen 1922an meatzaritzako langileek aurrera eramane zuten greba deialdiarekin, izan ere, lege honek, arlo honetan zeuden arazoei irtenbidea aurkitzeko bidea ireki zuen, langile zuriak enpresariekin negoziatuko baitzituzten euren lan baldintzak. Negoziazio hauetatik kanpo, langile beltzak geratu ziren, lege honek ez baitzituen “langile” kontsideratzen. Modu honetan, langile zuriak izango ziren euren kondizioez gain langile beltzenak negoziatuko zituztenak. Ondorioz, langile beltzei euren baldintzak negoziatzeko aukera kendu zitzaien<sup>26</sup>.

Laburbilduz, Hegoafrikako ekonomian nekazaritzak pisua galdu eta industria arloak garatze zein indar handiagoa jasan zuenean, hegoafrikar beltz askok erreserbetan pairatzen zituzten baldintza gogorak atzean utzi nahian, hirietara jo zuten. Bertan, egoera ez zen asko hobetu, krisi ekonomikoak langabezia tasa handitzen zuenean, langile zuriak eta beltzek lanpostu bat lortzeko norgehiagoka ekartzen baitzuen. Lehiakortasun honetatik, langile zuriak beltzek baino emaitza hobetua lortu zituztela esan daiteke, izan ere, gobernuak hauen interesak babesteko zituen legeak plazaratu zituen, langile beltzak

---

<sup>25</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 166.

<sup>26</sup> *Ibidem*, 169.

erabat mugatzen zituenak: muga geografikoak, dokumentazio agiriak, “langile” gisa ez identifikatzea... Honek guztiak biztanleria beltzaren bizi baldintzak okertzeaz gain, egoera honi aurre egiteko lehen mugimendu eta elkarteak sortzen hasi ziren.

### *2.3. Erresistentzia beltzaren mugimenduaren hastapenak*

Erresistentzia mugimenduek ahots eta oihartzun handiagoa lortu bazuten Apartheidaren egonkortzearen ostean, mugimendu eta erresistentziaren erakunde horien lehen pausoak XX. mende hasieran eman ziren. Horren adibide da 1912an sortu zen South African Native National Congress alderdia —1923. urtean African National Congress (ANC) izena hartu zuena— zeinak, hasiera batean jarraitzaile gutxi izan bazituen ere, mendearen erdialdetik aurrera beltzen eskubideen aldeko borrokaren ardatza bihurtu zen<sup>27</sup>.

1942-1943an Anton Lembed-ek ANCREn Gazteriaren Liga sortu zuen. Erakunde honetan, hurrengo urteetan indartu zen borrokaren aurpegi famatuen lehen urratsa izan zen, hala nola: Tambo, Mandela edota Sisulu<sup>28</sup>. Hasiera batean nahiko erakunde eksklusibista izan zela esan daiteke, soilik afrikarrak onartzen baitziren. Honen atzean, erakunde honen buruzagi nazionalistek komunismoarekiko zuten mesfidantzaren ideia gordetzen da, izan ere, beraienezat komunismoa ideologia arrotza izateaz gain, defendatzen zuten gehiengoak zuriak ziren. Horregatik, hasiera batean, soilik afrikarrak onartuko ziren<sup>29</sup>.

Mugimendu hauen helburu orokorra biztanleria ez-zuriak pairatzen zuen egoera aldatzea izango zen, hori dela eta, beltzen mugimenduaz gain, biztanleria indiarra edota *coloured* ere hainbat mugimendu sortu zituzten; South African Indian Congress (1923) lehengoek eta African Political Organization (1902) bigarrenenok. Bi mugimendu hauek ere, euren egoera salatzeaz gain, beltzen mugimenduan ere parte hartu zuten.

Hauetz gain, 1919an Clements Kadalie Lurmutur Hirian mugimendu txiki bat hasi zuen, laster nazio mailara hedatuko zena; Industrial and Commercial Workers Union (ICU) mugimendua hain zuzen ere. Bereziki nekazaritza eremuan eragina izan zuen, bertako biztanleek egoera larrian bizitzeaz gain, zerga ugari ordaindu behar zituzten eta honek biztanle askoren pobretzea ekarri zuen. Mugimendu honek arrakasta izan bazuen

---

<sup>27</sup> *Ibidem*, 174.-176.

<sup>28</sup> Antonio Santamaría, “Historia del A.N.C”, en *Surafrica*, Ferrán Iniesta, et al. (Madril: Iepala, 1986.), 33.

<sup>29</sup> R.W. Johnson, *Historia de Sudáfrica. El primer hombre. La última nación* (Bartzelona: Debate, 2005), 246; Maritxu Murua, *Nelson Mandela* (Donostia: Elkar, 2010), 33.

ere, ez zen gai izan etorkizunerako programa sendo bat egiten, horrela, poliki-poliki indar eta jarraitzaileak galdu zituen. Beste erresistentzia mugimendu bat 1921ean sortu zen South African Communist Party izan zen, alderdi honek gogor borrokatu zuen Hegoafrikako natiboen independentzia lortzeko edota beltzen independentzia lortzeko, politika arrazista muturrera iritsi zenean, ANCrekin batera gogor borrokatu zuelarik.

Beraz, Hegoafrikako Batasuna sortu eta gobernuak aurrera eraman zuen lege arrazistek herrialdean sortu zuten egoera latza aldatzeko asmoz, XX. mendearen erdialdetik aurrera indar gehiago hartu bazuten ere, mendearen hasieran jada mugimenduak antolatzen hasi ziren, helburua, betiere, politika baztertzailearekin amaitzea izango zelarik.

### 3. APARTHEID: BAZTERTZEAREN EGONKORTASUNA

1948. urtean National Partyk hauteskondeak irabazi zituenean, “*White Christian National State*” sortzeko asmoz, hau da, Estatu Zuria eta Kristaua, aurreko urteetan martxan jarri ziren legeri beste batzuk gehitu zitzaizkien<sup>30</sup>, Apartheid sistema politiko, sozial eta ekonomikoa martxan jarritz. Apartheid hitzak baztertzea esan nahi du afrikaans hizkuntzan, afrikaner herriaren hizkuntzan alegia, eta gutxiengo zuriek 1948tik Hegoafrikan ospatu ziren lehen hauteskunde orokorrak arte, hots, 1994. urtera arte iraun zuen sistema izan zen<sup>31</sup>. Afrikaner gobernuak martxan jarri zituen lege hauen atzean, helburu garbia zegoen:

*“El partido cree que una política definida de separación (Apartheid) entre las razas blanca y no blanca, y la aplicación también de la política de separación, también entre los grupos raciales no blancos, es la única base sobre la cual el carácter y el futuro de cada raza puede ser protegido y salvaguardado, y sobre la cual cada raza puede ser guiada para desarrollar sus propios carácter, aptitud y vocación nacionales”<sup>32</sup>.*

Gobernuak argi azaldu zuen bezala, politika honen helburua arraza zuriaren goraipamena eta nagusigoa ezartzea izango zen, biztanleria beltza, txanponaren beste aurpegia bihurtuko zelarik. Mandelak bere autobiografian azaltzen duen bezala,

---

<sup>30</sup> A. J. Christopher, *Op. cit.*, 65.

<sup>31</sup> Santiago Tazón Serrano “Apartheid y estado. Desigualdad ante la ley y fragmentación de la población y el territorio” (Doktoretza-tesia, Zaragozako Unibertsitatea, 2008), 42.

<sup>32</sup> *Ibidem*, 44.

Apartheid sistemaren baitan beltzek muga eta oztopo handiak izango zituzten Hegoafrikako politika, ekonomia zein gizarte arloan:

*“Cuando un niño negro crece, sólo puede aspirar a trabajos reservados a los negros, alquilar una casa en un suburbio para negros, viajar en trenes para negros y ser detenido en cualquier momento del día o de la noche para que enseñe su documentación [...] Su vida viene determinada por las leyes y restricciones racistas que anulan su desarrollo, ahogan su potencial y destrozan su vida”*<sup>33</sup>.

National Party boterea eskuratu eta berehala promulgatu ziren lehen legeak. Kaleratu zen lehenak, zuriak eta ez-zurien arteko ezkontzak debekatzen zituen, 1949ko *Mixed Marriages Act* legearen bitartez. Ondoren, beste arau baten ondorioz, *Immorality Amendment Act* hain zuzen ere, zurien eta ez-zurien arteko harreman sexualak debekatzen ziren. Lehen bi lege hauek, beraz, Apartheid helburua bermatzen zituela esan daiteke, izan ere, bi agindu hauen atzean arraza zuriaren garbitasuna ziurtasuna bilatzen zen.

1950an Apartheid sistemaren oinarrietako bat finkatu zen *Population Registration Act* legearekin, zeinaren helburua populazioa arrazaren baitan banatzea izango zen. Modu honetan hiru multzo sortu ziren: zuriak, beltzak eta, *coloured* edota mestizoak, azken honen barnean, indiarak, txinatarrak edota malaysieraz hitz egiten zutenek osatuko zuten. Taldekatzea itxura eta gizarte estatusaren arabera izaten zen, ondorioz, familiak banantzeko aukera zegoen, izan ere, kasu batzuetan familiako kideei talde ezberdinak esleitzen zitzairen. Modu honetan, kasu batzuetan klasifikazioa berriro egitea eskatzen zen, eskubide gehiago lortzeko edota talde ezberdinen artean ezkondu ahal izateko<sup>34</sup>. Honez gain, Lurmutur Hirian bozkatzeko aukera zuten *coloured* pertsonen bozkatzeko aukera kendu zitzairen<sup>35</sup>.

Honez gain, 1950an aurreko legearekin zer ikusia izango zuen beste lege bat plazaratu zen, *Group Areas Act* legea alegia. Lege honek arrazaren arabera bizilekuak antolatzen zituen, hau da, araudi honek Hegoafrikako lurzorua banatu zuen, arraza talde bakoitzak bere zatia izango zuelarik. Lege honek, aurrekoarekin batera, Apartheid zutabeetako bat izango zen, biztanleria zuria eta ez-zuriaren arteko erabateko baztertze

---

<sup>33</sup> Nelson Mandela, *El largo camino hacia la libertad* (Bartzelona: Punto de lectura, 2014), 105.

<sup>34</sup> A. J. Christopher, *Op. cit.*, 103.-104.

<sup>35</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 190.

geografikoa ekarri zuena. Lege honen ondorioz, XX.mende erdialderako hiriak eta landa eremuko zonalde asko biztanle zurien menpe egongo ziren, Witwatersrand hiria esaterako. Bertan industriaren sektorea oso garrantzitsua zen eta araudi honek, legezkoa egin zuen zuriak bertan kokatzen ziren meategi eta industrien jabe izatea.

Baina 1956an, hirietan geroz eta biztanleria ez-zuri gehiago egongo zen eta honek populazio zuriaren alarma piztu zuen, gertuegi ikusten baitzituzten beltzak edota *colouredak*. Modu honetan, birkokapen legea jarri zen martxan eta honek hirien kanpoaldean kokatzen ziren auzo pobreak hustu zituen. Honen adibidea da Sophiatown, Johannesburgeko tradizio eta kultura aberatsenetako auzo beltza, bertako 60.000 bizilagunak Soweto-ra indarrez eraman zituztelarik. Ez zen soilik beltzen auzoekin gertatu, Lurmutur Hirian kokatzen zen Seigarren Barrutiko auzo mestizoa ere berregituratu zuten<sup>36</sup>.

Beraz, D.F.Malan gobernuan ezarri zen lehen unetik, zuriak eta ez-zuriaren arteko baztertzea bermatuko zituen legeak plazaratu ziren, hurrengo urteetan gogortu eta areagotu zirenak, bereziki Dr. H.F. Verwoerd<sup>37</sup> 1950an Natiboen Auzien Lehen Ministro izendatu zenean. Honek ezarritako lehen legea 1951ko *Bantu Authorities Act* izan zen, aurreko urteetako legearekin batera, Apartheid sistemaren ezaugarri eta oinarrietako bat izan zena, izan ere, lege honek aurreko urteetan ezarritako bereizketa areagotu zuen, beltzen populazioa hamar “nazio” (Bantustan) edo talde etnikoetan banatu baitzituen, populazio beltza bertan bizitzera behartuz (ikus 3. eranskina). Honez gain, lege honek Afrikar Nazio mailako erakunde bakarra deuseztatu zuen *Native Representative Council* erakundea alegia.

Bantustanak beraz, enklabe etnikoak edo *homeland* izango ziren bakoitzak euren autonomia eta bidea jarraituko zutenak, Verwoerd esan zuen bezala: “*deberán responsabilizarse de su propio destino en las reservas [...] desarrollarse por su cuenta*”<sup>38</sup>.

---

<sup>36</sup> Maritxu Murua, *Op. cit.*, 38.

<sup>37</sup> H.F. Verwoerd Holandan jaio zen 1901ean eta Hegoafrikara emigratu zuen 1903an. Bertan, afrikaner nazionalismoarekin bat egin zuen berehala. Psikologian doktore zen honek, 1950ean egin zuen salto politika mundura, non D.F. Malan 1948ko hauteskundeak irabazita, Natiboen Auzien Lehen Ministro izendatu zuen. Kargu honen baitan, Apartheid oinarriak finkatu zituen, sistema honen buru eta pertsonai garrantzitsuenetarikoa batean bihurtuz. Leonard Thompson, *Op. cit.*, 189.

<sup>38</sup> Nelson Mandela, *Op. cit.*, 201.

Honez gain, bantustan hauetan gobernu txiki eta autonomo bat egongo zen, euren lurralde eta etnia antolatuko zuena, horrela bermatzen baitzuen 1959an plazaratu zen *Bantu Self-Government Act* legeak<sup>39</sup>. Honek, Venda, Transkei, Ciskei eta Bophuthatswana Hegoafrika barnean independenteak izatea ahalbidetu zuen, nahiz eta nazioartekoki ez ziren onartuak izan. Gainerako seiak, hots; Kwazulu, KawaNdebele, Lebowa, Gazankulu, KaNgwane eta Qwaqwa lurralde auto-gobernatuak izaten jarraitu zuten. Hala ere, azpimarratu behar da, bantustan hauen administrazioaz arduratuko ziren gizonak, Hegoafrikako gobernuak aukeratzen zituela, hau da, afrikanerrak aukeratzen zuten beltzen gobernuan egongo zirenak<sup>40</sup>. Ondorioz, bantustan hauen liderrak ez zuten Apartheidaren aurka egingo, nahiz eta kasu batzuetan legea muturrera eramaten zuten bantuetako eskubideak defendatzeko, Kaiser Matanzima, Transkei bantustaneko buruak egin zuen bezala. Honek Apartheidaren aurka borrokatu zuen: “*En Sudáfrica esta situación (el Apartheid) acabará [...] O se construye un gran Transkei, con las tierras que nos fueron tomadas a los xhosas, o el gobierno tendrá que acabar con la historia de los batustanes y darnos la ciudadanía de Africa del Sur*”<sup>41</sup>.

Lege hauen ostean, argi ikus daitekeen bezala, biztanle ez-zuriak geroz eta baztertuago egongo ziren Hegoafrikako hiritartasuna eta zuriengandik, izan ere, bantustanaren politikaren ondorioz, biztanleria ez-zuriek euren etniari zegokion lurraldearen hiritarra izango zen. Adibidez, Xhosa talde etnikoko pertsona bat, Transkei-koa izango zen, bertako hiritartasuna izango zuelarik (ikus 4. eranskina). Modu honetan, bantustanetatik zuriaren hirietara joaten zirenean lan egitera, atzerritar moduan egingo zuten.

Guzti hau kontrolatzeko, gobernuak *Abolition of Passes and Co-ordination of Documents Act* legea plazaratu zuen. Lege honek, *Pass Laws* bezala ezaguna, behartu egiten zuen 16 urteko populazio beltzari, emakume zein gizonezkoari, dokumentazio agiria gainean eramatea, non pertsonaren argazkia, jatorria, ibilbide profesionala zein juridikoa agertuko zen (ikus 5. eranskina). Agiri honek Hegoafrikako hiritartasuna kendu eta bantustanaren nortasuna ematen zuen, modu honetan, bertatik ateratzen zirenean atzerritar moduan egiten zuten, hori dela eta, soilik 72 orduko baimena zuten bantustanetatik kanpo egoteko. Zuriaren guneetan lan egiteko, aldiz, baimen berezia eskatu

---

<sup>39</sup> A. J. Christopher, *Op. cit.*, 66.

<sup>40</sup> R.W. Johnson, *Op. cit.*, 285.-286.

<sup>41</sup> Beatriz Bisso, “Sudáfrica: La crisis del Apartheid”, *Nueva Sociedad*, 31-32 (1977): 5.



behar zuten. Honez gain, agiria ez erakustea ekintza kriminaltzat egozten zen, isun ekonomikoa izango zuena (20-30 Rand, Hegoafrikako moneta alegia) eta ordaindu ezin bazen, 30-90 eguneko kartzela zigorra ezartzen zen. Lege honek, beraz, beltzen mugimenduen eta mugikortasuna kontrolatzeko funtsezko tresna izan zen<sup>42</sup>.

Afrikaner gobernuaren helburua, bantustan hauek “beltzen-nazio” izatea zen, horretarako euren autogobernua, ekonomia eta hezkuntza izango zutelarik. Azken honi erreparatzea interesgarria da, izan ere, ondo islatzen du gobernu afrikanerrak bantustan hauetatik lortu nahi zuena. 1953an plazaratu zen *Bantu Education Act* legearen bidez, Natiboen Auzietako departamenduak ezarri eta bideratuko zuen bantustan hauetako hezkuntza, hau da, bertan irakatsiko zen programaren kontrolak afrikanerrak ezarriko zuen. H. Verwoerdek, Natiboen Auzitako lehen ministroak esan zuen bezala:

*“La educación bantú debe ser controlada de tal forma que sea acorde con la política del Estado (...) si el nativo en cualquier escuela existente en la Sudáfrica de hoy es enseñado a esperar una vida adulta bajo una política de igualdad de derechos se está cometiendo un grave error (...) no hay lugar para él en la comunidad europea por encima del nivel de ciertas formas de trabajo”*<sup>43</sup>.

Argi ikus daitekeen bezala, haurrei eskola garaitik jada arraza zuriaren menpe egongo zirela edota ez zituztela euren eskubide berdinak lortuko inposatzen zitzaaien ideia zen. Kontuan izan behar da National Partyk lege hau plazaratu aurretik, misiolarien lana izango zela beltzen hezkuntza. Honez gain, azpimarratzekoa da haur gehiago eskolatu zirela baina kontuan izan behar dugu zurien eta beltzen arteko ezberdintasunak nabariak zirela: zurien eskolan handiak eta beharrezko guztiarekin hornituta zeuden bitartean, beltzen eskolak txikiagoak eta kaxkarragoak ziren<sup>44</sup>.

Azpimarratu behar da, Bantustan hauetako bizitza oso konplexua zela: langabezia tasa handia, jaiotza tasa altuak, nekazaritza geldialdia, industria garapen urriak etab. pobrezia egoera zabaldu zuen beltzen lurralde hauetan. Egoera honen ondorioz, oso ohikoa izan zen beltzek zurien hirietara joatea bertan lan egiteko, honek aldi berean, zurien alarma piztu zuen, ez baitzuten nahi beltzek euren hirietan egotea nahi. Modu honetan, gobernuak Tomlinson Komisia sortu zuen, zeinaren helburua, bantustan

---

<sup>42</sup> Santiago Tazón, *Op.cit.*, 49.

<sup>43</sup> *Ibidem*, 78.

<sup>44</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 196.

hauetako hazkunde eta garapena lortzea izango zen. Horretarako, industriaren garapena sustatu behar zen, baina gobernuak ez zuen inbertitu beharrezkoa zen diru kantitatea: 1956-1961 urteen bitartean gobernuak soilik 7,9 milioi libra gastatu zituen 104 milioi libra gastatzea aurreikusi zenean. Honez gain, ez zen begi onez ikusi kapital zuria erabiltzea beltzen lurraldea garatzeko, ondorioz, soilik beltzen kapitala erabiliko zen euren lurraldean egin beharreko inbertsioak egiteko<sup>45</sup>. Honen guztiaren ondorioz, 1966rako soilik 45.000 lan postu lortu ziren erreserba hauetan, esan bezala, beltzak hirietara joatea behartu zuena<sup>46</sup>. Horrela, estrategia bikoitza eraman zen aurrera 1960tik aurrera: batetik, industria guneak bantustanetatik gertu bazeuden, langile beltzak egunero joango ziren lantegietara, bizilekua bantustana izaten jarraituko zuelarik; eta bestetik, industriak bantustanetatik ahalik eta gertuen eraikitzea izan zen<sup>47</sup>.

Bantustan edo enklabe etniko hauen azalpenarekin amaitzeko, azpimarratu behar da politika honen oinarrian 1913an plazaratu zen *Natives Land Act* (Natiboen Lurren Legea) eta 1936an kaleratu zen *Native Trust and Land Act* (Natiboen Fideikomiso eta Lurren Legea) legeak zeudela, arestian aipatu bezala, biztanleria zuria eta ez-zuriari zegokien lur kopurua banatzen helburu zuen legeak. Modu honetan, bantustan politika honen ondorioz, Hegoafrikako lurren %80a, 3.000.000 zurien menpe egongo zen, gainerako lurren %20a, 8.000.000.000 beltzen esku egongo zen bitartean. Datu hauek ondo islatzen dute garai hartako errealitatea, non gutxiengo zuri batek Hegoafrikako jaun eta jabe izango zen: lekurik oparoenak ekonomia aldetik eta euren arrazaren “garbitasuna” mantentzen ahalbidetzen baitzien<sup>48</sup>.

Bantustanen politikak eta populazioa ezberdintzen zituen talde etnikoen legeak *groot Apartheid* edo Apartheid Handia bezala izan da historiografikoki landua. Modu honetan, Apartheid Txikia edo *Klein Apartheid* ere eman zen, azken honek egunerokotasuneko zerbitzuetan errotuta zegoen baztertzeari egiten dio erreferentzia<sup>49</sup>. *Reservation of Separate Amenities Act* 1953an promulgatu zen legeak, zurien eta beltzen arteko bereizketa ekarri zuen arlo publikoan, zerbitzuetan eta garraioetan. Horrela, ohikoa izan zen “Zuriak Bakarrik” bezalako kartelak edonon irakurtzea: taxi, ambulanzia, hila-auto, trenak, igogailuak, eserlekuak, komunak, parkeak, elizak, hiriak, zinemak,

---

<sup>45</sup> A. J. Christopher, *Op. cit.*, 87.-96.

<sup>46</sup> *Ibidem*, 283.

<sup>47</sup> Paul Maylan, “The Rise and decline of urban apartheid in South Africa,” *African Affairs*, 89 (1990): 70.

<sup>48</sup> *Ibidem*, 191.

<sup>49</sup> Santiago Tazón, *Op. cit.*, 64.

antzokiak, kafeak, jatetxeak, hotelak edota kiroletan —arraza ezberdineko biztanleek ezin zuten elkar lehiatu. Gainera, beltzek ezin zuten sortu Hegoafrikako talderik atzerrian parte hartzeko—<sup>50</sup>. Azken urteotan oso ezaguna izan da Hegoafrikako hondartzetan irakurri ahal zen kartela (ikus 6. eranskina).

Hala eta guztiz ere, 1970tik aurrera hirigintzan egin ziren baztertze politiken lehen arazoak azaleratu ziren, izan ere, bantustanetako egoera ekonomiko zein soziala geroz eta kaxkarragoa eta larriagoa izan zen XX. mendearen azken laurdenean<sup>51</sup>. Aldi berean, erresistentzia mugimenduak areagotzen eta indartzen hasi ziren.

#### 4. “MAYIBUYE AFRIKA!” (ITZULI AFRIKA!)

Hegoafrikako Batasuna sortu zenetik plazaratu ziren lehen lege baztertzailleen aurrean, ikusi bezala, erresistentzia mugimenduak lehen pausoak ematen hasi ziren. Halere, mugimendu hauek XX. mendearen erdialdetik aurrera hasi ziren protagonismo eta indar handiago hartzen. ANCri erreparatzen badiogu, argi ikus daiteke aldaketa hau, izan ere, National Partyk hauteskundeak irabazi ostean, belaunaldi gazteago eta erradikalago batek hartu zuen txanda alderdiaren barnean. Horrela; Tambo, Mandela edota Sisulu aurpegi famatuak agertzen hasi ziren<sup>52</sup>.

1950ko hamarkadan ANCren ekintzetan eragin handia izan zuen Gandhiren borroka bakezaleak. Honez gain, urte berdinean, *Suppression of Communism Act* legea plazaratu zen, komunisten alderdia debekatzen zuena. Nazioarteko testuingurua kontuan hartzen badugu, Gerra Hotzaren testuingurua alegia, Hegoafrikan ere komunismoa zabaltzearen beldur gobernua alderdi komunista debekatzea erabaki zuen, izan ere, marxismoaren doktrinaz haratago joandaz, arrazaren berdintasuna defendatzen zuten komunistek. Beraz, bi txori tiro beraz hil nahi zutela esan daiteke; batetik, komunismoaren zabaltzea gelditzea eta bestetik beltzen eskubideen aldeko borrokan alderdi bat gutxiago egotea<sup>53</sup>.

Hala eta guztiz ere, komunisten borroka ez zen bertan geratu, ANCra hurbildu zituzten. 1951ean ANCren kongresuan gobernuari bi hilabeteko epean sei lege makur indargabetzeko eskatu zuen: dokumentazio agiria, arrazen banaketa geografikoa, hautesleak ordezkatzeko sistema, komunismoa debekatzearena, bantuen agintariena, eta

---

<sup>50</sup> Leonard Thompson, *Op. cit.*, 197.

<sup>51</sup> Paul Maylan, *Op.cit.*, 70.

<sup>52</sup> Maritxu Murua, *Op. cit.*, 36.

<sup>53</sup> *Ibidem*, 42.

aziendak mugatzen zituena. Gobernuak, aldiz, ezezko erantzuna eman zuen eta honek lehen borroka erradikalizatzearen lehen txinparta izan zen; esaterako, Port Elizabeth-en 32 pertsona zurien atetik sartu ziren geltokian “Mayibuye Afrika!” (Itzuli Afrika) garrasi eginez edota bantustanetako hezkuntzaren aurkako ekintzak egin ziren<sup>54</sup>.

1955ean *Freedom Charter* edo Askatasunaren Agiria sortu zen, Apartheid aurkako borrokaren zutarriak ezartzen zituen idatzia hain zuzen ere. Kliptown-en ospatu zen bilera honetan anti-Apartheid mugimenduek hartu zuten parte<sup>55</sup>. Idatzia horrela hasten zen: “*Nosotros, el pueblo Sudáfrica, declaramos para conocimiento de todo nuestro país y del mundo: Que Sudáfrica pertenece a todos los que viven en ella, negros y blancos, y que ningún gobierno puede reivindicar con justicia la autoridad a menos que se base en la voluntad del Pueblo*”<sup>56</sup>.

Hegoafrikako oinarriak eta eskubideak nolakoak izan behar ziren ere deskribatzen zuen: “*Todos los grupos nacionales tendrán derechos iguales*”; “*el pueblo compartirá la riqueza del país*”; “*La tierra será compartida entre quienes la trabajan*”; “*Todos serán iguales ante la ley*”; “*Todos gozarán de derechos humanos iguales*”; “*Habrà trabajo y seguridad*”; “*Se abrirán las puertas de la instrucción y cultura*”; “*Habrà casas. Seguridad y comodidad*”; “*Habrà paz y amistad*”<sup>57</sup>.

Kartak deklarazioarekin bukatzen zuen: “*Por estas libertades lucharemos, codo con codo, durante toda nuestra vida, hasta que hayamos ganado nuestra libertad*”<sup>58</sup>.

Gobernuaren erantzuna errepresioa izan zen; Kiptown-era sartu eta 156 kide atxilotu zituzten. Gobernuaren eta erresistentzia mugimenduen arteko tira-birak areagotu egin ziren 1960. 1959an Pan-Africanist Congress (PAC) sortu zen, ANCren alderditik sortutakoa. PAC hurrengo urtean, 1960ko martxoan, Sharpevillen *Pass Laws* (dokumentazio agiriak) eta bestelako legeen aurkako errebolta sortu zuten. Poliziak, honen aurrean, errepresio gogorra gauzatu zuen, guztira 29 hildako eta 18.000 atxilotu inguru egon zirelarik<sup>59</sup>.

---

<sup>54</sup> *Ibidem*, 46.

<sup>55</sup> Frank Lenny, *African National Congress. A documentary History of the struggle against Apartheid in South Africa* (Smashwords, 2009), 20.

<sup>56</sup> R.W. Johnson, *Op. cit.*, 269.

<sup>57</sup> *Ibidem*, 269.

<sup>58</sup> *Ibidem*, 269.

<sup>59</sup> Frank Lenny, *Op.cit.*, 21.

Sortutako hildako eta zaurituen ondorioz, ANC eta PAC borroka bide bakarra zela defendatu zuten. Horrela, Poqo (PACren talde armatua) eta Umkonto we Sizwe (ANC talde armatua) sortu ziren. Hauek ekintza biolentoak eraman zituzten aurrera, zurien beldurra ekarri zuena bost zuri hil zituztenean. Poqo jendearen aurkako ekintzak egiten zituen eta Umkonto we Sizwren objektiboak baztertzearen kutsu sinbolikoa zuten gauzak izango ziren. Gobernuak *Ley de Sabotaje* (1962) promulgatu zuen, zeinak erresistentziaren erakunde eta mugimenduak debekatzen zituen. Halere, ANCren erresistentzia ez zen hemen gelditu, Apartheid aurkako mugimenduak klandestinitatearen izaera lortu zuen<sup>60</sup>. Hala eta guztiz ere, urte berdinean, Mandela, Sisulu eta alderdiko beste kide batzuk atxilotuak izan ziren, traizioaz egotzita<sup>61</sup>.

Nahiz eta gobernu afrikanerrak ezarritako Apartheid sistemaren aurkako borrokaren figura famatuak kartzelan egon, erresistentziak aurrera jarraitu zuen. Aipatzeko da Steve Biko-k sortutako Kontzientzia Beltzaren mugimendua. Ideologia honen oinarrian beltzen baloreak eta harrotasuna bultzatu zen. Erresistentziak lider karismatiko baten faltan, SASO (South African Students Organisations) berehala bildu zituen indarrak bantustanetako ikasleen artean, gero berehala zabaldu zen gainerako arloetara. 1972an SASO gorengo unean aurkitzen zen, baina 1977an lider karismatiko honen hilketak eman zen<sup>62</sup>.

Hegoafrikan gertatzen ari ziren atxilotze, matxinada eta hilketak oihartzun handia izan zuten nazioartean ere, poliki-poliki Apartheid politika iluntzen hasi zelarik. Nazio Batuen Erakundeak, esate baterako, hainbat txosten egin zituen egoera larri honetaz jabetzeko. Honez gain, Angola eta Mozambikek independentzia eskuratu ostean, Hegoafrikako egoera gogo salatu zuten. Presio politiko honi, Hegoafrikak XX. mende bukaeran jasan zuen krisi ekonomikoa gehitu zitzaion, Apartheid sistemaren oinarriak zalantzan jarritz. Modu honetan, 1989tik gobernuan zegoen F.W. de Klerk erresistentziaren pertsonaia karismatikoarekin jarri zen kontaktuan, Nelson Mandelarekin, zeina momentu horretan kartzelan egongo zen. Negoziazio eta elkarrizketa denbora luze baten ostean, 1994. urtean, lehen hauteskunde multiarrazistak ospatu ziren,

---

<sup>60</sup> Antonio Santamaría, *Op. cit.*, 36.

<sup>61</sup> Frank Lenny, *Op.cit.*, 23.

<sup>62</sup> R.W. Johnson, *Op. cit.*, 289.

emaitza garbi batekin Nelson Mandela Hegoafrikako lehen lehendakari beltza bihurtu zen, Apartheid sistema bertan behera utziz<sup>63</sup>.

## 5. ONDORIOAK

Bigarren Mundu Gerra ostean mundu berri baten ateak ireki ziren arren, non koloniek poliki-poliki euren independentziaren aldeko borroka egin zuten, Hegoafrikak beste bide bat jarraitu zuen. XVII. mendean iritsi ziren europarrak Lurmutur Hirira eta berehala hasi ziren holandarren eta britaniarren tira-birak bertako aberastasun gehiena lortu nahian. Kolonizazio honetan jada Hegoafrikako etnia eta indigenen zapaltzea eman bazen, lan honen abiapuntu kronologikoa Hegoafrikako Batasuna sortu zenean izan da, hots 1910. urtea.

Hegoafrikako Batasuna sortu zenetik, XX. mende erdialdera arte — National Partyk hauteskundeak irabazi eta ia 50 urte gobernua egon zen boterean— ezegonkortasun eta gora behera politiko, ekonomiko eta sozial handiko garaia izan zen. Gobernuan alderdi ezberdinen txandakatzea egon zen, baina guztiek komunean zuten arraza zurien interesen defentsa. 1910.-1948. urteen bitartean eman ziren gorabehera ekonomiek ondorio zuzenak izan zituen gizartean, bereziki biztanleria ez-zurian, izan ere, krisi edo ahulezia ekonomiko garaietan non langabezia tasak gora egiten zuen, zurien eta beltzen arteko tira-birak handitzen ziren, bi hauek lanpostu berdinegatik borrokatzen baitzuten. Testuinguru horretan, gobernuak zurien interesak bermatu nahian lege ezberdinak promulgatu zituen; hala nola, 1923an *Natives (Urban Areas) Act* zeinaren helburua beltzen mugikortasuna hirietan kontrolatzea zen, baita zurietatik zurien menpe zeuden hirietatik kanpo bizitzea.

Nekazaritza arloan ere, hainbat lege eman ziren beltzen egoera okertu zuena; hala nola: *Natives Land Act* (Natiboen Lurren Legea, 1913) eta *Native Trust and Land Act* (Natiboen Fideikomiso eta Lurren Legea, 1936). Bi lege hauen ondorioz, beltzei Hegoafrikako lurrazalaren 6,2 milioi hektarea esleitzen zitzairen, hau da, Hegoafrikako lurren %10a baino gutxiago. Kontuan hartzen badugu Hegoafrikan mendearen hasieran 11,4 milioi pertsona bizi zirela eta horietatik %68a beltzak zirela, argi eta garbi ikus daiteke lurrazalaren gehiengoa biztanleria zuriaren esku geratzen zela, hau da,

---

<sup>63</sup> Gerardo Denegri. *Op.cit.*, 14.-17.

gutxiengoaren esku. Beraz, beltzen aukera zurien erreserbetan bizi eta lan egitea bilakatu zen, bertako bizi baldintzak oso gogorak ziren arren.

1948an, National Partyk hauteskundeak irabazi eta aurreko urteetan plazaratu ziren legeen zorrotasun eta areagotzea eman zen, Apartheid sistema bezala ezagutzen den sistema arrazistari hasiera emanez. Biztanleria ez-zuriaren kontrola arlo guztietara zabaldu bazen ere: ekonomikoa, politikoa, zerbitzu eta garraioetan... esan daiteke sistema honen bizkar hezurra osatzen duten legeak 1919.-1948. urteen bitarteko garaian sortu zirela. Horren adibide oso garbia da 1951eko *Bantu Authorities Act*, zeinaren oinarrian 1913ko *Natives Land Act* (Natiboen Lurren Legea) eta 1936ko *Native Trust and Land Act* (Natiboen Fideikomiso eta Lurren Legea) legeak zeuden. Honez gain, Apartheid beste oinarrietako bat bihurtu zen *Pass Laws* ere, 1948tik aurrera gogortu bazen ere, dokumentazio agiri honen lehen pausoak jada kolonizazioaren garaian eman ziren.

Beraz, 1948an biztanleria ez-zuriaren aurkako legeak areagotu eta indartu baziren ere Apartheid sistemaren izendapenean, esan daiteke lege hauen lehen urratsak jada 1910an ematen hasi zirela, kasu batzuetan kolonizazio garaian ere. Jarraipen hau ere erresistentzia mugimenduetan ere ikusten da, izan ere, Hegoafrikako Batasuna sortu zenetik eta lehen lege baztertzailerak plazaratu zirenetik, mende guztian zehar diskriminazio honen borrokan aktibistak izan ziren erakundeen sorrera eman zen; hala nola: 1912an sortu zen South African Native National Congress alderdia —1923. urtean African National Congress (ANC) izena hartu zuena eta bertan, Nelson Mandela edota Walter Sisulu bezalako aurpegi famatuak borrokatu zuten.

Baina, lana honen hipotesi edo galderari helduz, Hegoafrikako biztanleria ez-zuriak XX. mendean zehar pairatu zuen baztertzeari erreparatzen diogunean, zergatik hartzen da abiapuntu gisa 1948. urtean eta urte horretan martxan jarri zen Apartheid sistema baztertzailerak, aurretik ere diskriminazio legeak plazaratu baziren? Galdera honen erantzunaren atzean hainbat faktore daudela azpimarratu nahiko nuke, baina bereziki, faktore ideologikoak jokatu zuen paperak mende honetan Hegoafrikako biztanleria ez-zuriak pairatu zuen baztertzeari aurpegi edo bide berria ekarri zuela esango nuke.

Apartheid sistemaren oinarriak kontuan hartzen baditugu, arraza zuriaren gailentasuna, indarra eta sendotzea lege guztien atzean dagoela ikus daiteke. Adibidez, Bantustanen legeak beltzen bizilekua zurien bizilekuetatik kanpo ezartzen zuen. Lege hau, arestian esan bezala, 1913ko eta 1936ko legeak oinarrian hartzen baditu ere, azken

bi lege hauek testuinguru ekonomiko batean hartu zirela azpimarratu behar da, zuriaren eta interes ekonomikoak bermatzeko alegia. Kasu honetan, 1951an plazaratzen den lege honen atzean, arrazoi ideologikoa dagoela antzeman daiteke hainbat arrazoiengatik: batetik, ekonomiari dagokionez, Hegoafrikak oparotasun aldia bizi zuen Bigarren Mundu Gerra ostean, beraz, zuriak eta beltzek ez zuten lanpostu berdinetatik borrokatu behar, hortaz, zuriaren interes ekonomikoak beteta egongo ziren; bestetik, gobernuak biztanleria ez-zuriaren lurraldeak ziren bantustan hauetan esku hartu zuen Tomlinson Komisioren bitartez, gobernuaren xedea baztertzeko hau gauzatzea zelarik; eta azkenik, gobernuak adierazi zuen bezala, bantustanen eta Apartheid sistema ezinbestekoa izango zen gutxiengo zuriaren nagusitasuna bermatzeko, baita zuriaren arrazaren garbitasuna bermatzeko, horretarako biztanleria arraza ezberdinetan banatzen zuen legea edota arraza ezberdinen arteko ezkontzak debekatzeko legeak plazaratu ziren.

Honez gain, aipatzekoa da Apartheid sistema arrazista honen pragmatismoa eman zela 1948tik aurrera, non legeak egunerokotasunaren bizitzan ere erroto ziren: garraioak, zerbitzuak... Guzti honek Hegoafrikako biztanleen haserrea areagotu zuen, erresistentzia mugimenduak bide aktiboago eta erradikalagoa hartu zutelarik. Aldi berean, errepresio handia eman zen; atxiloketak, hilketak, zaurituak... Modu honetan, XX. mendearen erdialdetik aurrera, eta bereziki Apartheid sistema sustraitzen joan zenean 60ko hamarkadan, biztanle ez-zuriaren ezinegonak, Hegoafrikak irakiten hasi zen lapiko batean bihurtu zen eta honek nazioarteko mailara eztanda egin zuen, Nazioarteko Batuen Erakundeak esku hartuz.

Azkenik, lanari amaiera emanez eta nire iritzia plazaratuz, Hegoafrikako biztanleria ez-zuriak XX. mendean zehar jasan zuen baztertzeko, Apartheid sistemak protagonismo guztia hartzen badu ere, baztertzeko honen lehen urratsak jada kolonizazio garaian ematen badira ere, modu sendo eta interes batzuen menpe 1910an hasten direla azpimarratu nahiko nuke. Egia bada ere, Apartheid muturrera eramanez zuela baztertzeko eta diskriminazioa, esan beharra dago sistema honen bizkar hezurra osatzen zuten legeak, 1910.-1948. urteen bitartean plazaratu zirela. Beraz, nire ustez, baztertzeko honen abiapuntua Hegoafrikako Batasuna sortu zenean jarri beharko litzateke, nahiz eta baztertzeko honetan fase edo etapa ezberdinak eman; 1910.-1948. urteen bitartean biztanleria zuriaren interes ekonomikoak ziurtatuko zuen baztertzeko; eta 1948.-1994. urteen bitartean, aldiz, Apartheid sistemaren baitan, baztertzeko pragmatiko eta ideologikoa eman zen.



## 6. BIBLIOGRAFIA

- Beinart, William eta Dubow, Saul. *Segregation and Apartheid in Twentieth-Century South Africa*. Taylor & Francis e-Library, 2003.
- Bisso, Beatriz. "Sudáfrica: La crisis del Apartheid," *Nueva Sociedad*, 31-32 (1977): 231-240.
- Christopher, A.J. *The Atlas of Apartheid*. Londres: Routledge, 1991.
- Denegri, Gerardo. "Sudáfrica: su difícil camino hacia la libertad," *Revista Relaciones Internacionales*, 49 (2015): 1-19.
- Johnson, R.W. *Historia de Sudáfrica. El primer hombre. La última nación*. Barcelona: Debate, 2005.
- Lenny, Frank. *African National Congress. A documentary History of the struggle against Apartheid in South Africa*. Smashwords, 2009.
- Mandela, Nelson. *El largo camino hacia la libertad*. Barcelona: Punto de lectura, 2014.
- Martínez Rueda, Fernando eta Aizpurua Murua, Mikel. *Gaur egungo munduaren historia 1945-2009*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2011.
- Murua, Maritxu. *Nelson Mandela*. Donostia: Elkar, 2010.
- Paul, Maylam, "The rise and decline of urban Apartheid in South Africa," *African Affairs*, 89 (1990): 57-84.
- Roland, Oliver. *África desde 1800*. Madrid: Alianza, 1997.
- Ross, Robert. *Historia de Sudáfrica*. Madrid: Akal, 2006.
- Sánchez Cervello, Josep. *Descolonización y surgimiento del Tercer Mundo*. Barcelona: Hipòtesi, 1997.
- Santamaría, Antonio. "Historia del A.N.C". En *Surafrica*, Ferrán Iniesta et al. Madrid: Iepala, 1986.
- Seeking, Jeremy eta Nattrass Nicoli. *Class, Race, and Inequality in South Africa*. New Haven: Yale University Press, 2005.

Tazón Serrano, Santiago. “Apartheid y estado. Desigualdad ante la ley y fragmentación de la población y el territorio”. Doktoretza-Tesia, Zaragozako Unibertsitatea, 2008.

Thompson, Leonard. *A history of South Africa*. New Haven: Yale University Press, 2001.

## 7. ERANSKINAK


### 1. Eranskina: Hegoafrikako Batasunaren mapa.

Iturria: Robert Ross, *Historia de Sudáfrica* (Madrid: Akal, 2006), 90.or.




2. **Eranskina:** 1913 eta 1936ko Natiboen Lurren Legearen arabera, beltzei egotzi zitzaaien lurren mapa.

Iturria: A. J. Christopher, *The Atlas of Apartheid* (Londres: Routledge, 1994), 33.or.



### 3. Eranskina: Hegoafrikako Bantustanak

Iturria: R.W. Johnson, *Historia de Sudáfrica. El primer hombre. La última nación* (Bartzelona: Debate, 2005), 35.



### 4. Eranskina: Taula. Hegoafrikako 10 Bantustanak eta bakoitzaren talde etnikoa.

Bantustana	Talde etnikoa
Transkei	Xhosa
Venda	Venda
Bophuthatswana	Tsawana
Ciskei	Xhosa
Gazankulu	Shangaan
KaNgwane	Suazi
Qwaqwa	Hegoaldeko Shoto
KwaZulu	Zulu
Lebowa	Iparraldeko Shoto
Kwadenbele	Ndebele

**5. Eranskina: Pass Laws. Dokumentazio-agiria.**

Iturria: <http://passiontounderstand.blogspot.com.es/2011/08/this-day-in-history-9-august-1956.html>



**6. Eranskina: Hegoafrikako hondartzetan agertzen ziren kartelak. “Zuriak soilik”**

Iturria: <http://passiontounderstand.blogspot.com.es/2011/08/this-day-in-history-9-august-1956.html>

